# Bestelako Xedapenak

**HERRIZAINGO SAILA**

**6521**

EBAZPENA, 2008ko azaroaren 4koa, Herrizaingo sailburuordearena, 2008ko irailaren 24ko Aginduaren bitartez (2008ko urriaren 3ko EHAA, 189. zenbakia) egindako deialdiari dagozkion diru-laguntzak esleitzen dituena, Suteen Itzaltze eta Aurreikuspen eta Salbamendu Zerbitzuen titularrak diren foru- eta udal-administrazioek babes zibilaren arloko zereginetarako materiala eskuratzeko eta berritzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Suteen Itzaltze eta Aurreikuspen eta Salbamendu Zerbitzuen titularrak diren foru- eta udal-administrazioek, 2008ko irailaren 24ko Aginduak (2008ko urriaren 3ko EHAA, 189. zenbakia) onartutako herri babeseko planak ezartzeko beharrezko materialak eta jarduteko teknikak eskuratzeko diru-laguntzaz baliatzeko helburuaz, egindako eskabideak ikusi ondoren, eta epaimahai kalifikatzaileak eskabide horiek aztertu ondoren,

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.–*** 2008ko irailaren 24ko Aginduak (2008ko urriaren 3ko EHAA, 189. zenbakia) onartutako herri babeseko planak ezartzeko beharrezko materialak eta jarduteko teknikak eskuratzeko diru-laguntzak esleitzea Suteen Itzaltze eta Aurreikuspen eta Salbamendu Zerbitzuen titularrak diren foru- eta udal-administrazioei; Ebazpen honen eranskinean zehazten dira zenbatekoak eta materialak.

***Bigarrena.–*** Diru-laguntzaren onuradunek, eranskinean zehazten diren zenbatekoak jasotzeko, deialdiaginduko 12. eta 13. artikuluetan ezartzen diren baldintzak eta eskakizunak bete beharko dituzte.

***Hirugarrena.–*** Administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Herrizaingo sailburuari, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 4a.

Herrizaingo sailburuordea,
M.ª DEL YERMO URQUIJO ELORZA.

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**

**6521**

RESOLUCIÓN de 4 de noviembre de 2008, de la Viceconsejera de Interior, por la que se adjudican las subvenciones correspondientes a la convocatoria aprobada por Orden de 24 de septiembre de 2008 (BOPV n.º 189, de 3 de octubre de 2008) para la adquisición y/o reposición de material técnico en tareas de Protección Civil por las administraciones forales y municipales titulares de los Servicios de Prevención y Extinción de Incendios y Salvamento.

A la vista de las peticiones formuladas por las administraciones forales y municipales titulares de los Servicios de Prevención y Extinción de Incendios y Salvamento de la Comunidad Autónoma del País Vasco con el objetivo de acogerse a la subvención para adquirir el material preciso y las técnicas de actuación necesarias para la implementación de los Planes de Protección Civil, aprobado por Orden de 24 de septiembre de 2008 (BOPV n.º 189, de 3 de octubre de 2008), examinadas las mismas por el Tribunal calificador correspondiente y a propuesta de éste

RESUELVO:

***Primero.–*** Adjudicar las subvenciones para adquirir el material preciso y las técnicas de actuación necesarias para la implementación de los Planes de Protección Civil, aprobadas por Orden de 24 de septiembre de 2008 (BOPV n.º 189, 3 de octubre de 2008) a las administraciones forales y municipales titulares de los Servicios de Prevención y Extinción de Incendios y Salvamento, en las cuantías y por el material y/o actividad que se reseña en el anexo de la presente.

***Segundo***.– El abono de las cantidades que se reflejan en el anexo exigirá a los beneficiarios de la subvención el cumplimiento de los requisitos y obligaciones que se establecen en los artículos 12 y 13 de la Orden de convocatoria.

***Tercero***.– Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Interior en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de noviembre de 2008.

La Viceconsejera de Interior,
M.ª DEL YERMO URQUIJO ELORZA.

ERANSKINA

| Administrazio eskatzailea | Ematen den dirulaguntza | |
|---|---|---|
| | Materiala | Zenbatekoa |
| Aiarako Suteen Itzaltze eta Aurreikuspen, eta Salbamendu Partzuergoa | – Tuneletan esku-hartzeko teknika bereziak eskuratzeko jarduerak, zerbitzuko 2 kiderentzat.<br>– Egitura kolapsatuetan, teknika bereziak eskuratzeko jarduerak, zerbitzuko 2 kiderentzat. | 2.900 |
| Vitoria-Gasteizko Udala | – Tuneletan esku-hartzeko teknika bereziak eskuratzeko jarduerak, zerbitzuko 6 kiderentzat.<br>– Egitura kolapsatuetan, teknika bereziak eskuratzeko jarduerak, zerbitzuko 6 kiderentzat.<br>– Egitura kolapsatuak dituen hondameneko egoeretan eta tunelen suteetan jarduteko materiala erostea. | 41.512 |
| Bilboko Udala | – Tuneletan esku-hartzeko teknika bereziak eskuratzeko jarduerak, zerbitzuko 6 kiderentzat.<br>– Egitura kolapsatuetan, teknika bereziak eskuratzeko jarduerak, zerbitzuko 6 kiderentzat. | 8.700 |
| Donostia-San Sebastiángo Udala | – Tuneletan esku-hartzeko teknika bereziak eskuratzeko jarduerak, zerbitzuko 4 kiderentzat.<br>– Egitura kolapsatuetan, teknika bereziak eskuratzeko jarduerak, zerbitzuko 4 kiderentzat. | 5.800 |
| Bizkaiko Foru Aldundia | – Tuneletan esku-hartzeko teknika bereziak eskuratzeko jarduerak, zerbitzuko 6 kiderentzat.<br>– Egitura kolapsatuetan, teknika bereziak eskuratzeko jarduerak, zerbitzuko 6 kiderentzat. | 8.700 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | – Tuneletan esku-hartzeko teknika bereziak eskuratzeko jarduerak, zerbitzuko 6 kiderentzat.<br>– Egitura kolapsatuetan, teknika bereziak eskuratzeko jarduerak, zerbitzuko 6 kiderentzat. | 8.700 |

*ANEXO*

| *Administración solicitante* | *Subvención concedida* | |
|---|---|---|
| | *Material* | *Importe* |
| *Consorcio de Prevención, Extinción de Incendios y Salvamento de Ayala* | *– Actividades de adquisición de técnicas especiales en Intervenciones en túneles para 2 miembros del servicio.*<br>*– Actividades de adquisición de técnicas especiales en estructuras colapsadas para 2 miembros del servicio.* | *2.900* |
| *Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz* | *– Actividades de adquisición de técnicas especiales en Intervenciones en túneles para 6 miembros del servicio.*<br>*– Actividades de adquisición de técnicas especiales en estructuras colapsadas para 6 miembros del servicio.*<br>*– Adquisición de material para la actuación en situaciones catastróficas con colapso de estructuras e incendios en túneles.* | *41.512* |
| *Ayuntamiento de Bilbao* | *– Actividades de adquisición de técnicas especiales en Intervenciones en túneles para 6 miembros del servicio.*<br>*– Actividades de adquisición de técnicas especiales en estructuras colapsadas para 6 miembros del servicio.* | *8.700* |
| *Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián* | *– Actividades de adquisición de técnicas especiales en Intervenciones en túneles para 4 miembros del servicio.*<br>*– Actividades de adquisición de técnicas especiales en estructuras colapsadas para 4 miembros del servicio.* | *5.800* |
| *Diputación Foral de Bizkaia* | *– Actividades de adquisición de técnicas especiales en Intervenciones en túneles para 6 miembros del servicio.*<br>*– Actividades de adquisición de técnicas especiales en estructuras colapsadas para 6 miembros del servicio.* | *8.700* |
| *Diputación Foral de Gipuzkoa* | *– Actividades de adquisición de técnicas especiales en Intervenciones en túneles para 6 miembros del servicio.*<br>*– Actividades de adquisición de técnicas especiales en estructuras colapsadas para 6 miembros del servicio.* | *8.700* |